

EUSKO JAURLARITZAKO ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKEN SAILARI ATXIKITA DAGOEN "ALOKABIDE, S.A." SOZIETATE PUBLIKOAREN INFORMAZIO – SISTEMETAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTUA BETETZEKO HAUTAPEN PROZESUA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

LEHENENGO OINARRIA.- DEIALDIAREN XEDEA

Oinarri hauen helburua **Informazio – Sistemetako teknikariaren** lanpostua betetzeko hautaketa prozedura arautzea da, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari atxikita dagoen ALOKABIDE, S.A. sozietate publikoaren zerbitzura lan-kontratudun langile gisa aritzeko, Gasteizko Gamarrako Ataria 1A helbidean izaera mugagabea duten zerbitzuak eskainiz.

Lanpostuaren funtzioak ondorengoak dira:

LANPOSTUAREN EGINKIZUNA:

Enpresarentzat definitutako Sistemen Plana abian jarri, erakundeari bere eskumen eremuan laguntza teknikoa emanez.

LANPOSTUAREN OINARRIZKO FUNTZIOAK

1. Erakundearen eskari/beharren azterketa egitea, konplexuen edo kritikoen handitzea, irizpideak lortu eta aztertzea, funtzio zehaztasunak eta diseinuzkoak egitea hura ebazteko, aplikazioen gaineko informazio konponbideak programatzea, ale bakarreko eta integrazioko frogak egitea eta erabiltzailearen funtzio probei euskarria ematea.
2. Dokumentazio funtzional eta teknikoko proposamenak egitea.
3. Bere eskumenekoak diren eremuetan prozedura eta jarraibide proposamenak egitea.
4. Zure eremuko prozesu lan-taldeen buru izatea eta horietan parte hartzea, baita hobekuntza proiektuen ardura hartzea eta horietan parte hartzea ere.
5. Arazoak identifikatzea eta aplikazioen funtzionaltasuna edo errendimendua optimizatu edo hobetzeko aurretikoak eta zuzentzaileak diren ekintzak proposatzea.
6. Kanpo zerbitzuek ezarritako garapen metodologia jarraitzea bermatzea eta lotutako dokumentazioa egoki osatzea.
7. Kanpora ateratako lanen kalitatea egiaztatzea eta ematea.
8. Bere kompetentzia eremuan txosten teknikoetako proposamenak egitea.
9. Jarduerari lotutako jarraibideen eta formatuen erabileraren jarraipena egin eta kontrolatzea.
10. Gorabehera teknikoei arreta ematea zuzenean konponduz edo maila altuago batera eramanez.

11. Esleipenen kontratazio, koordinazio eta funtzionamenduaren jarraipenari lotutako izapideetan laguntza lanak egitea.
12. Bere kudeaketa eremuko jardun blokeei lotuta esleitzen zaizkion lanak egitea.
13. Bere jarduera eremuan laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea.
14. Oro har, ezarritako helburuak gauzatzeko beharrezkoak diren funtzio guztiak gauzatea, antzeko jatorria eta prestakuntza dutenak.

Kontratazioa langileen estatutuaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da, hau da, gehienez ere 6 hilabeteko probaldia izango duen kontratu mugagabea, EAEko Zerbitzupeko Kolektiboen Hitzarmenaren antzinatasunaren helburuetarako 10. eta B taldeari dagokion urteko soldata gordinarekin. Lantokia hauxe izango da: Gamarrako Ataria 1A, Gasteiz.

Deialdi honetan Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko 2007ko apirilaren 12an 7/2007 Legearen 52., 53., 54., 55. eta 59. artikuluetan ezarritakoa aplikatzen da.

Deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta oinarriak eskuragarri daude ALOKABIDEn web orrian (<http://www.alokabide.euskadi.eus/lan-poltsa>) eta CAMPO & OCHANDIANO kanpoko aholkularitza-enpresaren web orrian (www.campo-ochandiano.com).

BIGARREN OINARRIA.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK

A) Baldintza orokorrak

- a) Herritartasuna: Europar Batasuneko estaturen bateko herritartasuna izatea; edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritartasuna izatea.
- b) Adina: Hamasei urte beteta izatea eta oraindik ez izatea nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina.
- c) Titulazioa: eskatzen den gutxieneko titulazioa hauxe izango da: Informatika, Telekomunikazioetako Ingeniaritza Teknikoa, Informatika + EAZ Diplomatura titulu bikoitza edo baliokidea edo maila altuagokoa diren beste titulazio batzuk informatika, sistemak edo telekomunikazioetako esparruan.
- d) Funtzio-gaitasuna: Dagozkien eginkizunak betetzearekin bateraezina den gaixotasunik edo mugapen fisiko edo psikikorik ez izatea.
- e) Gaitzea: Autonomia-erkidegoetako administrazio publikoetako edo organo konstituzionaletako edo estatutu organoetako edozein zerbitzutatik baztertu ez izana diziplina-espeditate bitartez, ezta ebazpen judizialaren bitartez, enplegu edo kargu publikoak betetzeko erabateko gaitasungabetzearen edo gaitasungabetze bereziaren egoeran egotea ere. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaituta ez egotea edo antzeko egoeraren batean ez egotea;

halaber, enplegu publikoa lortzea eragozten duen diziplina-zehapenaren edo antzekoren baten eraginpean egon ez izana bere Estatuan, baldintza beretan.

Edozein modutan ere, baldintza orokorrak baztertzailerak dira.

B) Baldintza Espezifikoak

Baztertzailerak:

- f) Análisi edota análisis eta programazio eremuan 3 urteko esperientzia.
- g) ERP kudeaketa integraleko erreminten ezagutza zehatzak: MS Dynamics NAV , SAP...
- h) EAEko hizkuntza ofizial biak jakitea, bai ahoz, bai idatziz; euskara maila: B2.

Ez baztertzailerak:

- i) Informatika sistema eta erreminten ezagutza zehatzak, hala nola: MS Dynamics NAV , SharePoint, SQL Server, Citrix, Logic, Windows, .net, BI/Power BI, ...
- j) Informazio Sistema proiektuak kudeatzeko metodologia.
- k) Gizonen eta emakumeen aukera-berdintasunaren arloko prestakuntza.
- l) Beste hizkuntza batzuk jakitea.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

Hautagaiek euren **curriculum vitae** erregistratu eta bidali beharko dute **SR2419-erreferentzia 4.650 – INFORMAZIO – SISTEMETAKO TEKNIKARIAREN** eskaintzari erantzunez, CAMPO & OCHANDIANO-en web orriaren bitartez (www.campo-ochandiano.com) **BAINO EZ**.

Horrez gain, posta elektronikoaren bitartez (alokabide@campo-ochandiano.com) bidali beharko dute honako dokumentazio hau:

- **eskaera:** bertan adieraziko da A) bigarren atal osoa betetzen dela (horren eredu bat CAMPO & OCHANDIANO-en (www.campo-ochandiano.com) web-orrian dago).
- **adierazpena:** bertan adieraziko da bigarren B) ataleko f), g) eta h) letretan eskatzen dena betetzen dela (horren eredu bat CAMPO & OCHANDIANO-en -en (www.campo-ochandiano.com) web-orrian dago).
- Curriculum Vitae.
- NANaren edo dokumentu baliokidearen kopia.
- Eskatzen den gutxieneko titulazioaren kopia.

Eskabideak aurkezteko epea deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasi eta egutegiko 10 eguneko izango da, hots, **2016eko martxoarena 3an** amaituko da.

LAUGARREN OINARRIA.- ESKABIDEAK EGIAZTATZEA

Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, zuzen daitezkeen akatsak konpontzeko izapideari ekingo zaio, eta horretarako epe bat emango da.

Onartutako eta baztertutako hautagaien zerrenda, ALOKABIDEn (<http://www.alokabide.euskadi.eus/lan-poltsa>) eta CAMPO & OCHANDIANO-en web orrietan (www.campo-ochandiano.com) argitaratuko da.

BOSGARREN OINARRIA.- HAUTATZEKO PROZEDURA

Hautatzeko prozedurak fase hauek izango ditu:

0. FASEA

HIRUGARREN OINARRIAN eskatuta dokumentazioa begiratu eta egiaztatu.

1. FASEA

Honako hauetan oinarrituko da:

- a) Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen ariketa bat egitea, ezagutza espezifikoak ebaluatzeko. Horretarako, lanpostuari loturiko gaitasun teknikoen ezagutzaren proba praktiko bat egingo da. Proba horrek 1. Eranskinean dagoen gai-zerrenda izango du oinarri.
- b) Titulu ofizialik aurkeztu ez dutenek euskara-proba bat egin beharko dute, eskatutako baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

2. FASEA

Honako hauetan oinarrituko da:

- c) Merezimenduen balorazioa: esperientzia, prestakuntza, hizkuntzak ,... Atal honen neurketa 2. eranskinean zehaztutakoari jarriki egingo da
- d) Proba psikoteknikoak: gaitasun-test edo/eta pertsonalitate-test bat edo gehiago egingo da.
- e) Gaitasun elkarrizketa: curriculumari buruzko elkarrizketa bat egingo da, eta horren bidez, lanpostuari lotutako gaitasun teknikoak, orokorrak, baita zeharkako eta jarrerazko gaitasunak ere ebaluatuko dira. Proba hori kanpoko aholkularitza-enpresak egingo du (CAMPO & OCHANDIANO).

Probak egiteko egunak, lekua eta ordua ALOKABIDEn (<http://www.alokabide.euskadi.eus/lan-poltsa>) eta CAMPO & OCHANDIANO-en (www.campo-ochandiano.com) web orrietan argitaratuko dira. a), b), eta d) ataletan aipatutako probak egun bakar batean egingo dira.

Merituen egiaztagiriak, lan-bizitzaren agiria barne, a), b) eta d) atalean aipatutako probak egingo diren egunean bertan aurkeztu beharko dira.

Egiaztagiriak eman zireneko datak, betiere, eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehenagokoa izan behar du.

Atal honen neurketa 2. eranskinean zehaztutakoari jarriki egingo da.

CAMPO & OCHANDIANO enpresak emaitzak biltzen dituen txostena argitaratuko du eta aukeratutako epaimahaiak onetsi ondoren, akta idatziko da eta, bertan, hautagai finalisten zerrenda jasoko da.

Hautagai bakoitzaren NANaren azken 4 zenbakiak eta letra jasotzen dituen zerrenda hori ALOKABIDEn (<http://www.alokabide.euskadi.eus/lan-poltsa>) zein CAMPO & OCHANDIANO-en (www.campo-ochandiano.com) enpresaren web orrietan argitaratuko da.

CAMPO & OCHANDIANO enpresak 5 puntuaziorik onenak lortu dituzten izangai finalisten txosten osoa egingo du.

3. FASEA

Elkarrizketa pertsonala: ALOKABIDEk izendatutako epaimahaiak egindako elkarrizketa izango da. Bertan, hautagai finalistek antolakuntzarako duten egokigarritasuna ebaluatuko da, gaitasun teknikoen eta generikoen balorazioaren bidez.

1., 2. eta 3. faseei dagozkien atalak epaimahaiak ezarritako irizpideen arabera ebaluatuko dira. Irizpide horiek **2. Eranskinean** ematen dira.

SEIGARREN OINARRIA.- EPAIMAHAIA OSATZEA

1. eta 2. fase bakoitzaren emaitzak balioztatzeke eta 3. fasea egiteko, ondorengoek osatuko duten epaimahai kalifikatzailea eratuko da:

- Epaimahaiburua: Iruñe Berasaluze (Zuzendari nagusia)
- Mahaikidea: Ignacio Torres (Administrazioaren eta Kontratu-kudeaketaren zuzendaria)
- Mahaikidea Igor Etxabe (Arreta eta Kanpo Komunikazio Arloko zuzendaria)
- Mahaikidea: David Lopez de Landatxe (Langileen legezko ordezkaria)
- Idazkaria: Rosa Labrador (Pertsonen arduraduna)

Ezinezkoa bada epaimahaiko kideren bat bertaratzea, sozietatearen zuzendari nagusiak hura ordeztuko duen pertsona bat izendatuko du. Edonola ere, epaimahaiak gutxienez hiru kidez osatuta egon beharko du.

Lanpostu horretarako probaldia 6 hilabetekoa izango dela ezarri da eta epaimahaiak probaldi hori ebaluatzeko batzordea izendatu beharko du. Hala, beraiek egin beharko dute sartze prozesuaren jarraipena eta, aldekoa baldin bada, itxi beharko dute; kontrakoa bada, berriz, erabaki hori justifikatzen duen txosten bat egin beharko dute.

ZAZPIGARREN OINARRIA.- LAN POLTSAREN ERAKETA

Hautaketa probak amaitu ondoren, epaimahaiak puntuazio orokor altuena duen izangaiaren aldeko kontratazio proposamena egingo du, proba bakoitzean lortutako puntuazioak gehitu ondoren.

Berdinketa egonez gero, epaimahaiak proba praktikoren bat adostuko du hautagairik onena aukeratzeko helburuarekin.

Hautagaiaren hautaketa interesdunari jakinaraziko zaio eta honek, hamar egun naturaleko epean, ALOKABIDE, S.A.n hautapen prozesu honetan parte hartzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu:

- Bete beharreko funtzioak normaltasunez gauzatzea galarazten ez duen gaixotasun edo ezintasun fisikorik ez duela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Curriculum vitaen aitortutako akademia prestakuntza egiaztatzen duten titulazioen eta egiaztagiri edo diplomen kopia egiaztatua.
- Ziurtagiriaren kopia egiaztatua edo fotokopia (hizkuntzak...).
- Lan-bizitzaren egiaztagiria, curriculum vitaen aitortutako esperientzia profesionala egiaztatzen duena.

Proposatutako hautagaiak eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badu, ALOKABIDE, S.A.k, prozeduraren amaierako puntuazioaren ordenari jarraiki, gai den ondorengo hautagaia kontratatu ahal izango du.

Hautaketa probak amaitu ondoren, hautagaien poltsa osatuko da, ALOKABIDE, S.A.n profil hori duten eta bete gabe dauden lanpostuak behin-behinean betetzea xede duena.

Poltsako izangai bakoitzaren puntuazio ordenak deitzeko ordena zehaztuko du.

Poltsa 5 urtez egongo da indarrean.

ZORTZIGARREN OINARRIA.- DATUAK BABESTEIA

Sozietate publiko honek, datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betez, hautagaiei jakinaraziko die hautaketa-prozesuan parte hartzearen ondorioz ALOKABIDEra bidaltzen dituzten datu pertsonalak ALOKABIDE S.A.ren titulartasuneko fitxategi informatizatu batean ("Lan-poltsa" izenekoan eta aldez aurretik Datuak Babesteko Espainiako Agentzian inskribatuan) jasoko direla, eta hautaketa-prozesuan parte hartzea kudeatzeko erabiliko direla deitutako plaza betetzeko eta, hala badagokio, etorkizuneko aldi baterako kontratazioetarako hautagaien lan-poltsa bat egiteko.

DPBLOren (LOPD) 9. artikulua eta DPBLO Garatzeko Araudiaren (RLOPD) VIII. Tituluak ezarritakoa betez, ALOKABIDEk bere fitxategiak, lokala eta datuen tratamendurako sistemak babesteko neurri teknikoak zein antolamendu-neurriak hartu ditu, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta haien aldatzea, galtzea edo baimenik gabe tratatu eta baliatzea saihesteko moduan.

Hautagai direnek, datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoak aitortzen dituen eskubideak, hau da, datuok eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubideak gauzatu ditzakete. Horretarako, eskaera idatzi eta sinatu bat ARCO erreferentzia aipaturik, hautagaiaren NANaren kopia batekin batera bidali behar dute ALOKABIDE S.A. enpresara, posta arruntez (Gamarrako Atea 1-A, 2.solairua – 01013 Gasteiz –Araba–), edo bestela, posta elektronikoki bidez, lopd-alokabide@alokabide.eus helbidera.

1. ERANSKINA – INFORMAZIO – SISTEMETAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTUA BETETZEKO PROBA PRAKTIKOAREN GAI ZERRENDA

- 1.go GAIA.-** Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko eremuko legeria. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa.
- 2. GAIA.-** Informazioaren gizartearen eta merkataritza elektronikoaren zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legea.
- 3. GAIA.-** Herritarrek zerbitzu publikoetara elektronikoki sartzeari buruzko 11/2007 Legea.
- 4. GAIA.-** Administrazio Elektronikoari buruzko 21/2012 DEKRETUA.
- 5. GAIA.-** Segurtasun eskema nazionala
- 6. GAIA.-** Elkarreragingarritasun eskema nazionala
- 7. GAIA.-** Enpresa kudeaketa erremintak, ERP: administrazioa, konfigurazioa, segurtasuna, lan fluxuak, osagarriak, CRM.
- 8. GAIA.-** Interneten, intraneten eta extraneten erabiltzeko lengoaiak, erremintak eta protokoloak. Web zerbitzuak: SOAP, REST, XML Lengoaia. Sharepoint: administrazioa, edukien kudeaketa, lan fluxuak.
- 9. GAIA.-** Erakunde-harreman eredua. Harreman eredua. Normalizazioa.
- 10. GAIA.-** SQL Server Datu Baseen Zerbitzaria: ezaugarri nagusiak. Administrazio eta konfigurazio oinarriko kontzeptuak. SQL lengoaia: SQL lengoaiaren kontzeptu eta garapena. Datuen definiziorako lengoaia (DDL). Datuen manipulazio lengoaia (DML) eta DCL. Datuen kontzeptu eremua lortzea E/R hedatuko ereduko teknikaren bidez. Kontzeptu eredua normalizatutako harreman eredu logiko batera aldatzea.
- 11. GAIA.-** ITIL oinarriak. Zerbitzuaren estrategia. Zerbitzuaren diseinua. Zerbitzuaren trantsizioa. Zerbitzuaren gauzatzea. Zerbitzua hobetzen jarraitzea.
- 12. GAIA.-** Softwarea arin garatzea. Metodologia arinak: SCRUM, XP, FDD, LEAN software development, etab.
- 13. GAIA.-** Enpresa inteligentzia: Datu-meatzaritza, Business Intelligence, Data Warehouse, ETL, SSAS, OLAP kuboak, Power BI.
- 14. GAIA.-** Softwarea frogatzeko metodoak. Oinarriak. Froga funtzionalak eta ez funtzionalak. Kutxa beltza eta kutxa txuria. Softwarea frogatzeko estrategiak. Datu migrazioak.
- 15. GAIA.-** Komunikazio sareak. Definizioak. Topologiak. Sailkapena.

**1. ERANSKINA – INFORMAZIO – SISTEMETAKO TEKNIKARIAREN
LANPOSTUA BETETZEKO PROBA PRAKTIKOAREN GAI ZERRENDA**

16. GAIA.- Sistema eragileak. Oinarrizko kontzeptuak. S.O. osatzen duten elementuak, MS Windows.

17. GAIA.- OSI eredua. Mailak. Zerbitzu eta protokoloen deskribapena.

18. GAIA.- Ofimatika. MS Office. Osatzen duten aplikazioak eta hauen erabilera.

2. ERANSKINA – INFORMAZIO – SISTEMETAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTUA BETETZEKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK

1.- HELBURUA

Agiri honen helburua **INFORMAZIO – SISTEMETAKO TEKNIKARIAREN** lanpostuaren hautapen prozesuaren 1.FASEA, 2. FASEA eta 3. FASEA faseak puntuatzeko irizpideak ezartzea da.

Irizpide horiek orokorrak dira eta dagokion epaimahaiak aldatu ahal ditu, faktore bakoitzean ezarri diren mugen barruan.

2.- FASEAK ETA FASEEN ARABERAKO PUNTUAZIOAK

Hautagaien balorazioa bi fasetan egingo da

- 1.- **1. fasea:** gaitasun probak
 - Gehienezko puntuazioa 1. fasean: **25 puntu**
- 2.- **2. fasea:** merezimenduen balorazioa.
 - Gehienezko puntuazioa 2. fasean: **50 puntu**
- 3.- **3. fasea:** curriculumaren arabera elkarrizketa
 - Gehienezko puntuazioa 3. fasean: **25 puntu**

3.- BALORATZEKO IRIZPIDE OROKORRAK

1. FASEA:

- Fase horretan lanpostuaren ezagutza teknikoa baloratuko da.
- 1. fasearen puntuazioa, guztira, **25 puntukoa** izango da.

Proba horretan, **gehienezko puntuazioa 25 puntukoa** izango da.

Ezagutza zehatzen atal horretan gai izateko **%50ko** puntuazioa lortzea ezinbestekoa da, hau da, gutxienez **12,5 puntu** lortu behar dira.

- **1. fasea guztizkoaren** (1. fasea, 2. fasea eta 3. fasea) **%25** da.

2. ERANSKINA – INFORMAZIO – SISTEMETAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTUA BETETZEKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK

2. FASEA

- 2. fasean merezimenduen balorazioa funtzioak gauzatzeko gaitasunen proba batekin osatuko da.
- Fase horretan gehienezko puntuazioa **50 puntutakoa** izango da

2. FASEA					
MEREZIMENDUEN BALORAZIOA					
15%	30%	7,5%	7,5%	20%	20%
0 – 7,5 puntu	0 – 15 puntu	0 – 3,75 puntu	0 – 3,75 puntu	0 – 10 puntu	0 – 10 puntu
Bat datorren esp. profesionala	Lotura duen prestakuntza	Euskara	Hizkuntzak	Psikoteknikoak	Gaitasun elkarrizketa

- Fase horretan baloratuko diren faktoreak hauek dira:
 - **Bat datorren esperientzia profesionala:**

Eskatzen denaren antza duten beste lanpostuetan izandako esperientzia profesionala baloratuko da.

Faktore hau **gehienez 7,5 puntuekin** baloratzen da, eta lan egindako **hilabete bakoitzak 0,10 puntu** balio ditu.

- **Lotura duen prestakuntza**

Lanpostuaren gaitasun teknikoak garatzea xede duen prestakuntza zehatza baloratzen dugu.

Alderdi hori **gehienez ere 15 punturekin** baloratuko da.

- **Baztertzailak ez diren eta 250 ordu baino gehiagokoak diren ikastaro eta titulazioak** baloratuko dira, informazio-sistematan mantentze eta kontserbazio eremuetan, informatika aplikazioak, informatika sistema eta erremintak, besteak beste, ERP, MS Dynamics NAV , SAP, SharePoint, SQL Server, Citrix, Logic, Windows, .net, BI/Power BI, ..., informazio Sistema proiektuak kudeatzeko metodologia, pertsonen lidergoa, gizonen eta emakumeen arlokoak eta/edo bete beharreko lanpostuarekin zerikusia dutenak. Alderdi hori honela puntuatuko da: **3,75 puntu** ikastaro bakoitzeko.

2. ERANSKINA – INFORMAZIO – SISTEMETAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTUA BETETZEKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK

- **100 orduko ikastaro espezializatuak** baloratuko dira, batez ere, arlo honetakoak: informazio-sistematik mantentze eta kontserbazio eremuetan, informatika aplikazioak, informatika sistema eta erremintak, besteak beste, ERP, MS Dynamics NAV , SAP, SharePoint, SQL Server, Citrix, Logic, Windows, .net, BI/Power BI, ..., informazio Sistema proiektuak kudeatzeko metodologia, pertsonen lidergoa, gizonen eta emakumeen berdintasuna eta/edo bete beharreko lanpostuari lotutakoak **edo beste arlo batzuetako** (aipatutakoak ez direnak) **250 ordu baino gehiagoko ikastaro espezializatuak**, zehazki, **2,25 puntu** emango da ikastaro bakoitzeko.
- **50 orduko** (edo gehiago) **ikastaro espezializatuak** baloratuko dira, batez ere, arlo honetakoak: informazio-sistematik mantentze eta kontserbazio eremuetan, informatika aplikazioak, informatika sistema eta erremintak, besteak beste, ERP, MS Dynamics NAV , SAP, SharePoint, SQL Server, Citrix, Logic, Windows, .net, BI/Power BI, ..., informazio Sistema proiektuak kudeatzeko metodologia, pertsonen lidergoa, gizonen eta emakumeen berdintasuna eta/edo bete beharreko lanpostuari lotutakoak **edo beste arlo batzuetako** (aipatutakoak ez direnak) **100 ordu baino gehiagoko ikastaro espezializatuak**, zehazki, **1,5 puntu** emango da ikastaro bakoitzeko.
- **20 orduko ikastaro espezializatuak** baloratuko dira, batez ere, arlo honetakoak: informazio-sistematik mantentze eta kontserbazio eremuetan, informatika aplikazioak, informatika sistema eta erremintak, besteak beste, ERP, MS Dynamics NAV , SAP, SharePoint, SQL Server, Citrix, Logic, Windows, .net, BI/Power BI, ..., informazio Sistema proiektuak kudeatzeko metodologia, pertsonen lidergoa, gizonen eta emakumeen berdintasuna eta/edo bete beharreko lanpostuari lotutakoak **edo beste arlo batzuetako** (aipatutakoak ez direnak) **50 ordu baino gehiagoko ikastaro espezializatuak**, zehazki, **0,75 puntu** emango da ikastaro bakoitzeko.
- Lanpostuari dagozkion gaitasun tekniko zehatzak garatzeko beste ikastaro batzuk (10 ordu baino gehiago irauten dutenak): **0,375 puntu**.

Epaimahaiak modu zehatzagoan zehaztu ahalko du aurreko irizpideetan islatu ez den beste edozein ikastaro edo master interesgarri eta aurreko ataletan ezarritakoarekin bat eginez baloratuko da.

2. ERANSKINA – INFORMAZIO – SISTEMETAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTUA BETETZEKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK

○ **Euskara**

Atal horretan, lanposturako beharrezkoa dena gainditzen duen euskarako prestakuntza baloratu da. Horretarako, titulu ofiziala aurkeztu beharko da.

Faktore hori **gehienez ere 3,75 punturekin** baloratuko da.

- C1, 3.HE edo antzerakoa: **1,875 puntu**
- C2, 4.HE edo antzerakoa: **3,75 puntu**

○ **Hizkuntzak**

Atzerriko edozein hizkuntzako prestakuntza baloratuko dugu. Horretarako, titulu ofiziala aurkeztea beharrezkoa izango da.

Faktore hori **gehienez ere 3,75 punturekin** baloratuko da.

- Oinarrizko – tarteko maila: B1 Europako markoa: **0,75 puntu**
 - Tarteko maila – maila altua: B2 Europako markoa: **1,875 puntu**
 - Maila altua – aurreratua: C1 Europako markoa: **3,75 puntu**
- **Psikoteknikoak**: test moduko bi proba egingo dira eta puntuazioa **gehienez 10 puntukoa** izango da (test bakoitzarentzat 5 puntu).
- **Gaitasun elkarrizketa**: xede horrekin kontratatu den hautapen enpresak egindako elkarrizketa. Bertan, ondorengo gaitasunak baloratuko dira:

GAITASUNAK				GAINONTZEKO EZAUGARRIAK			
1,25 puntu	1,25 puntu	1,25 puntu	1,25 puntu	1,25 puntu	1,25 puntu	1,25 puntu	1,25 puntu
Jakingura intelektuala	Harreman-sarearen garapena	Lidergoa	Emaitzekiko orientazioa	Talde-lana	Motibazioa	Malgutasuna	Egokitzea

Faktore hori **gehienez ere 10 punturekin** baloratuko da

- 2. fasea guztizkoaren (1. fasea, 2. fasea eta 3. fasea) **%50** da.

2. ERANSKINA – INFORMAZIO – SISTEMETAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTUA BETETZEKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK

3. FASEA

- 3. fasea prozesu hau burutzeko sortutako epaimahaiak egingo duen elkarrizketa pertsona batekin osatuko da.

- **Elkarrizketa pertsonala**

Alderdi hori **gehienez ere 25 punturekin** baloratuko da

Epaimahaiak egindako elkarrizketa. Bertan, erakundearekiko egokigarrtasuna baloratuko da honako gaitasun hauen bitartez:

Gaitasunak									
2	3	3	3	3	3	3	3	2	25
Itxaropenak	Autonomia, erabakitzeko ahalmena	Hobetzeko proposamenak	Bezeroarekiko orientazioa	Plangintza, antolakuntza	Lidergoa	Harremanak, lantaldeak, pertsonen arteko trebetasunak	Alderdi teknikoak	Lan taldera egokitzea	Guztira

Elkarrizketa pertsonalaren atal horretan gai izateko **%60**ko puntuazioa lortzea ezinbestekoa da, hau da, gutxienez **15 puntu** lortu behar dira.

- 3. fasea guztizkoaren (1. fasea, 2. fasea eta 3. fasea) **%25** da.